

BASQUIÑUELAS

– ARABA / ÁLAVA –

Basquiñuelas herrixka txikia Erriberagoitia udalerrian dago, Gasteiztik 28 km-ra eta Miranda de Ebro 30 km-ra. Bertara heltzeko, Gasteiztik Burgosera daraman errepidea hartu eta A-2622tik jarraituko dugu, Langraiz Okarantz. Han, Pobeseko zeharbidea hartuko dugu, Arbiganoko Bentetarrantz, A-4317 errepidetik, Omecillo eta Baia ibaien arroen arteko inguru menditsuan dagoen muino baten hegiraino.

Herrixka Donemiliagako Reja delako Kartularioan aipatzen da idatziz lehenengo aldiz, Ossinganiko Barrutiaren barruan eta *Banconguelas* izenaz golde-burdina baten ekarpena esleitzen zaiola. Dirudenez, x. eta xi. mendeetan zehar Gaztelako erresumaren mende izandako jendeztatze-prozesuaren ondorioz osatu zen herrixka, beraren izenak berak adierazten duenez. Dokumentuen arabera, 1216an San Ginésen omenezko monasterio bat zegoen, agian gaurko parroquia-eliza bera izan zitekeena.

A 28 km de Vitoria-Gasteiz y 30 km de Miranda de Ebro, se halla la pequeña población de Basquiñuelas perteneciente al municipio de la Ribera Alta. Llegaremos por la carretera que lleva a Burgos desde Vitoria-Gasteiz, para seguir en la carretera A-2622 hacia Nanclares de la Oca. Allí se toma la travesía de Pobes, hacia el acceso de Ventas de Arbígano por la A-4317, hasta la falda de un cerro, en un entorno montañoso, entre las cuencas de los ríos Omecillo y Bayas.

Aparece por primera vez en la documentación escrita en el documento de la Reja de San Millán, contribuyendo con una *regga de ferro*, bajo el topónimo de *Basconguelas*, y perteneciendo al Alfoz de Ossingani. Parece que esta aldea se formó durante la repoblación en los siglos x y xi bajo el reinado de Castilla, como así atestigua su propio topónimo. En el año 1216 aparece documentado un monasterio dedicado a San Ginés, que puede corresponderse con la actual iglesia parroquial.

San Gines eliza / Iglesia de San Ginés

SAN GINÉSEN izenpeko parroquia-eliza hirigunean txertaturik dago. Jatorrizko oinplano angeluzuzenari alboetako kaperak, ataria eta kanpandorra erantsi zitzaizkion geroagoko garaietan.

Kanpoaldea harlangaitzezko hormekin eraiki zen; barrualdea, berriz, kareztaturik dago, silarrizko eraikuntza aizuna simulatuz. Margoturiko dekorazio hori hormetan zein estalkian ageri da, barruan. Kanpoko erlaitzean, estalkiaren azpian, xake itxurako apainduraren hondar gutxik iraun dute, antzina eraikinaren perimetro osoa hartuko bide zuen arren.

Portadari dagokionez, erlaitzekoaren moduko xake taularen itxurako egitura bikoitzaz apainduriko arku zorrotza da nabarmengarriena, bai eta bola batzuk ere. Giza irudi txiki batzuk ere badaude, oso trauskilak eta egoera txarrean, absidearen kanpoko horman. Irudiok hormaren harrien artean ezkutaturik daude, jatorrizko kokalekutik aldatuta, itxura guztien arabera.

Barrualdean, gurutze-gangak nabarmentzen dira, erdiko nabean zein alboetako kaperak txikietan. Kaperak

ESTA IGLESIA PARROQUIAL, cuya advocación está dedicada a San Ginés, se encuentra integrada en el casco urbano de la población. Se presenta con una planta rectangular, alterada por módulos anexos de épocas posteriores, como las capillas laterales, el pórtico y la torre campanario.

El exterior aparece construido con muros de mampostería, mientras que su interior se muestra bajo una capa de enladrado, simulando una falsa edificación de sillares. Esta decoración pintada se puede ver tanto en los muros como en la cubierta del interior. En la cornisa exterior, bajo la cubierta, se han mantenido escasos restos de una decoración de tipo ajedrezado, que antaño debió de recorrer todo el perímetro del edificio.

De la portada solamente cabe destacar el arco apuntado, decorado también con un doble ajedrezado como el de la cornisa, y unas bolas. Podemos encontrar unas pequeñas figuras antropomorfas, muy toscas y mal conservadas, e incrustadas en el muro exterior del ábside. Están escondidas entre las piedras del muro, y su posición



Portada

Portada



*Burualdean
txertatutako erliebea*

*Relieve incrustado
en la cabecera*



Bataiarria

Pila bautismal

horietan barrokoan egin omen ziren giltzarri polikromoak ikusten dira.

Aipamen berezia merezi du elizaren alboetako batean dagoen bataiarriak, Arabako erromanikoko ponterik interesgarrienetakoa da eta. Apaingarri ikusgarrienak goiko aldean ageri dira, ontzian, alegia. Animalien irudiak erakusten dituzte: bi hegazti handi eta lau hankako bi animalia txikiago, arkumeak, agian; horiez gain, sugea ere azaltzen da, Bataioko sakramentua hartzeko zain dagoena irudikatzen duen arkumearen irudian gorderik, tentazio gisa. Animalien irudiak oso sinpleak badira ere, jatorrizko bekatuaren gaineko garaipena adierazten dute, usoek irudikatutako Bataioko sakramentuaren bidez lortua. Kristautasunaren historian maiz irudikatutako gaia da hori.

Testua eta argazkia: JCE/MLAI

actual nos indica que están desplazadas de su posición original.

En el interior predominan las bóvedas de crucería, tanto en la nave principal como en las pequeñas capillas laterales, dotadas estas últimas de claves polícromas, posiblemente realizadas en época barroca.

Merece destacarse la pila bautismal que alberga la iglesia en uno de sus laterales. Se trata de una de las pilas bautismales más interesantes del románico alavés. La decoración principal se desarrolla en la parte superior de la pila, es decir, en la taza. Se nos muestran motivos animalísticos. Son dos aves de mayor tamaño, acompañadas de dos cuadrúpedos más pequeños, quizá dos corderos. No falta tampoco la forma de una serpiente que, a modo de tentación, se esconde en la figura del cordero, que representa a quien está pendiente de recibir el sacramento del bautismo. Pese a la sencillez de las figuras de los animales, esta temática representa el triunfo sobre el pecado original, que se alcanza a través del sacramento del bautismo, figurado por las palomas, un tema ampliamente utilizado en la historia del cristianismo.

Texto y fotos: JCE/MLAI

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, pp. 57-59, 112; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 268-269; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1987, p. 15; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 65-66; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 58; RUIZ DE LOIZAGA, S., 1982, p. 170; SÁENZ RODRÍGUEZ, M., 2004, p. 226.